

## EDITORIALA

### Azken txanpa

Motzean ezin eta handinahian dabilta espainiar sindikatuak erre-trean murrizketak direla eta. Aurrez, jakina zen elkarriketa sozialaren ondorioz pentsioen inguruko negoziaketak ez zuela ezer onik emango eta, hala ere, hortxe jarraitzen dute, mahaira kateaturik baleude bezala. Hori baldintzatu ezinean, motzean ezinean eta hor non asmatu duten erantzukizunez aritzeko trikimailua. Eduki potolok omen dituen itun orokorra negoziatzeko bideari ekin diote, ziur aski orain arte ustezko marra gorri guztiak apurtuko dituen ituna. Bertan, enplegu politika aktiboak birmoldatzeko gaia, lan erreformaren garapeneko dekretuak, negoziazio kolektiboaren inguruko xehetasunak, energiaren ingurukoak... guzti horiek osatuko dute ituna. Hori bai, Zapatero jaunak behin eta berriro baieztatu duen moduan, pentsioetan murrizketak izango direla ziur egon gaitezke. Marra gorriak pasa arren, erantzukizunez jokatzeko omen dute espainiar sindikatuak, beren esanetan.

Hilaren atzeneko egunotan pentsioen sisteman inoiz eman diren murrizketa handienak onartuko ditu espainiar gobernuak. Kotizaziopeko pentsioa izateko urte gehiagoko exijitu, pentsioa kalkulatzeko urte kopurua handitu, erretiro adina atzeratu, pentsio osoa kobratzeko kotizazio urte gehiago ezarri... denak helburu berdinekin jarritako neurriak: pentsioa izateko eskubiderako sarbidea atzeratu eta pentsioen diru kopuruak gutxitu.

Sinestezina baderitzogu ere, emaitza jakinda ere, nolabaiteko oniritzia emango die CCOO eta UGTk erreformari, barka, murrizketari. Makina ikusita gaude eta ez gaude harrizteko oso, baina... tira. Aldiz, gehiengo sindikalak deiturik, grebarako hitzordua dugu urtarrilaren 27rako. Langile artean eta gizartearen ere bestelako erreferentziak sortu nahi duen eredu sindikalak bizirik dirau, indartsu dago eta kemenez eutsiko dio erronkari. Hasita daude mobilizazioak motorrak berotzeko eta egunotan enpresa eta sektoretako asanbladak izango dira ardatza. Hel-du azken txanpari.

**ELAK milaka lagun bildu zituen urtarrilaren 14ean greba orokorra prestatzeko eskualdeetan antolatutako mobilizazioetan**

# URTARRILAK 27: GREBAREN GIROA BEROTZEN ARI DA

ELAK buru belarri jarraitzen du urtarrilaren 27ko greba orokorra prestatzen. Horrela, urtarrilaren 14ean, ostirala, sindikatuko delegatuen eta ordezkarien bilerak egin ziren eskualde guztietan –Iruñean asanblada egun bat lehenago egin zen, urtarrilaren 13an–. Guztira milaka izan ziren Gasteizen, Bilbon, Basaurin, Sodupen, Areetan, Durangon, Donostian, Azpeitian, Oñatin, Tolosan, Irunen eta Iruñean egindako bileratan parte-hartu zuten ELAren kideek.

Langile-jendea eraso bortitzak jasaten ari den honetan, sindikatuko ordezkariak argi utzi zuten ez daudela amore emateko prest, eta kalera atera eta geure eskubideak defendatzearen garrantzia azpimarratu zuten. Hego Euskal Herri osoan zehar egindako agerraldi guztietan ideia bera helarazi zioten ELAko ordezkariak euskal gizarteari: erantzuna jasaten ari garen erasoaren parekoa izan behar da.

Espainiako gobernuak pentsioen inguruan iragarri dituen neurriak aurrera aterako balitu, inoiz onartutako murrizketarik handiena litzateke. Hori dela-eta, ELAK mobilizatzearren beharra azpimarratzen du. Sindikatuko idazkari nagusi Adolfo Muñozek Gasteizen egindako agerraldian agenda propioa ezartzearen garrantzia azpimarratu zuen.

“Ezinbestekoa da Zapateroren jokoan sartu nahi duten alderdi horiek guztiak erretratuta geratzea. Planteatzen duten erreforma oso gogorra da. Eskubideak murrizten dituzte bankuek diru gehiago irabazi dezaten. Zapaterok bankarentzat egiten du lan; jakin badaki pentsio publikoak jaisten baditu funtsa pribatuak kontratatuzera derrigortzen duela. Bankarentzat, soilik sektore publikoa atzera botatzen bada egin dezakeen negozioa da”.

Helburu horretan Zapaterok agintzeko aukera duten alderdien laguntza eta konplizitatea duela gaineratu zuen Muñozek. “Botere politikoak ez du botere ekonomikoari kalte egin-



*Varios miles de delegados y delegadas de ELA han participado en las asambleas y manifestaciones celebradas en todas las comarcas para apoyar la huelga general del próximo 27 de enero*



*Durante la asamblea de Gasteiz se realizó un pequeño homenaje a las trabajadoras de la Residencia Ariznavarra por su lucha en defensa de las condiciones laborales. Las trabajadoras realizaron una huelga de casi tres años, logrando su objetivo de mejorar sus condiciones de trabajo.*

go dion inolako neurririk hartu nahi. Hori argi eta garbi ikusten da bai Madrilan, bai Gasteizen eta bai Iruñean. Pentsioen erreforman hau horren lekuko da: bankak jarraitu beharreko bidea ezartzen du, eta agintean dauden alderdiak –berdin PSOE, PP, PNV edo UPN–, konpartitu egiten dute bide hori”.

UGT eta CCOO sindikatuen jarrera ere gogor salatu zuen ELAko idazkari nagusiak. “Langileok ditugun eskubide guztiak hamarkada luzetako borrokaren ostean lortu ditugu. Orain, Espainiako gobernuak pentsioen kontra inoiz egin duen murrizketarik gogorrena iragarri du, eta UGT eta CCOO horixe daude, Gobernuarekin solasean gure eskubideen kontrako eraso honi estaldura ematen. Hori soilik ulertu liteke *gizarte elkarriketa* deitzen duten horretan parte hartzeagatik diru publikoetatik jasotzen dituzten dirutzak ikusita. Langile-jendea eta gizartea desmobilizatzeko pentsatua dagoen eredu da”.



HAUTESKUNDE SINDIKALAK



**EUSKAL SINDIKATUA**

*langileekin, erantzuteko prest!*





## PENTSIONEN MURRIZKETA: URTARRILAK 27, GREBA OROKORRA

Espainiako Gobernuak 2011ko urtarrilaren 28a jarri du mugaegun, pentsioen erreforma onesteko. Berriro ere, Gobernu patronalaren eta bankaren esanetara jarri da. Helburua gure pentsioak gero eta miseriazkoagoak izatea eta pentsio plan pribatuak kontratatze-rra derrigortzea da –permititu dezake-nak–.

### ZEIN NOLAKO NEURRIAK HARTUKO DIRA PENTSIONEN ERREFORMA GAUZATZEARREN?

**1-** Erretiro-adina 67 urtera atzertzea. Gainera, erretiro-adina atzertze-aren ondorioz zailagoa egingo zaie gazteei lan-merkatuan sartzea; eta, beraz, laneratze-adina ere atzeratuko da.

**2-** Pentsioen oinarri arautzailea kalkulatzeko kontuan hartzen diren urteak gehiago izango dira. Hori dela-eta, pentsioen zenbatekoa txikiagoa izango da. Adibidez, kontuan hartzen diren urteak, 15 izan beharrean, 25 badira; pentsioa batez bestez %10 murriztuko da. Orain dela urte gutxira arte, 2 urte baino ez ziren kontuan hartzen kalkulua egiterakoan.

**3-** Kotizaturiko urteen arabera norberari dagokion pentsioaren zenbatekoa murriztuko da. Esate baterako, oinarri arautzailearen %100eko pen-

sioa izateko, 35 urtez kotizatu behar izan dira. Oinarriaren %50 jasotzeko, 15 urteko kotizazio-aldia beharko da. Erreformaren ildotik, lehenengo kasuan 38 edo 40 urteko kotizazio-aldia beharko da, eta bigarren kasuan 20 urtekoa.

**4-** Kotizaziopeko pentsioa jasotzeko eskubidea izateko, urte-kopurua ugaltzea, (orain 15 urte). Neurri hori oso kaltegarria izango da lanaldi partzialeko kontratuak eta aldizkako kontratu finkoak dituzten gizataldeentzat (merkataritza, garbiketa, eskola-jantokiak, kontserbak...). Kontuan izan, gainera, kidego horietan emakumeak nagusitzen direla; eta beraz emakumeak bereziki kaltetuak izango gara. Adibideak:

**A ADIBIDEA: Merkataritzako langilea, astean 20 orduko lanaldia duena:** Gaur, kotizaziopeko pentsio bat jasotzeko eskubidea lortzeko, gutxienez 20 urtez lan egin eta kotizatu behar du lanaldi horretan.

Erreformaren ondorioz 20 urteko kotizazio-aldia beharko da; beraz, lanaldi horretan aurrerantzean 27 urtez lan egin eta kotizatu beharko du (7 urte gehiago).

**B ADIBIDEA: Garbitzailea, astean 12 orduko lanaldia duena:** Gaur, langile horrek 33 urteko kotizazio-aldia behar du, pentsio bat kobratu ahal izateko.

Erreformaren ostean, langile berak 44 urtez kotizatu beharko du, 11 urtez gehiago.

### ERREFORMAREN ONDORIOAK:

- Pentsio txikiagoak.
- Batzuetan, bizitza osoan kotizatu arren, ez dute pentsiorako eskubiderik izango.
- Gazteak luzeago ibili beharko dira lan bila.
- Bereziki emakumeak kaltetuko ditu, lan merkatura beranduago sartzen gara-eta. Sektore feminizatuetan lanaldi partzialak eta aldizkako lan-kontratu finkoak oso ohikoak dira, eta askotan derrigortuta aurkitzen gara gure lanak aldi-baterakoz uztea, zaintza lanetarako dedikatzeke.

**Zein da neurri horien benetako helburua?** Merkatua irekitzea pentsioen sistema pribatuei eta espekulazio-bideei. Bankak jarraitu beharreko bidea markatzen du eta instituzio guztiak, –bai Gasteizkoa eta bai Iruñeakoa zein Madrilekoa–, berdin PSOE-EE, PNV edo UPN buru izan, konpartitu egiten dute.

Gure eskubideak bipiltzen ari dira etengabe beste inoren mesedetan, baina bada garaia ASKI DA esateko. Horregatik, gehiengo sindikalak GREBA

OROKORRERA deitu du, URTARRILAREN 27an.

### URTARRILAREN 27an DENOK GREBARA!



# RESPONSABILIDAD

**En el contexto de la crisis** –y en especial de las reformas y recortes que los gobiernos están llevando a cabo – hay una palabra que se repite hasta la saciedad. Esa palabra es “responsabilidad”.

Conviene prestar atención al uso de las palabras. Porque con ellas, a menudo, no se pretende dar razones. Con las palabras, convertidas en eslóganes por su repetición, se trasladan y refuerzan imágenes y se inculcan valores y prácticas. Lo que se pretende, en definitiva, es que asumamos cosas que en principio no estaríamos dispuestos a asumir. Por eso, las palabras son tan importantes... y son tan peligrosas.

Todos valoramos lo que esta palabra expresa: la responsabilidad. ¿Quién quiere jugársela con un irresponsable? ¿Quién quiere que un político, que su jefe o que su médico sea un irresponsable? ¿Quién quiere que su hijo o su hija sea una irresponsable? Todos queremos gente responsable. Por una razón muy simple: porque la necesitamos. Porque necesitamos gente de fiar.

**Y entonces ¿dónde está el ardid?** La trampa está en que la palabra “responsabilidad”, tal y como se usa, apela a una imagen fuerte que reside en nuestra mente. Es la imagen del buen padre y la buena madre. Y nos remite, directamente, a una experiencia que todos los padres y madres tenemos. Es esa experiencia dolorosa que nos lleva a exigir a nuestro hijo o hija que recorra el camino difícil, que se complique un poco más la vida, que se sacrifique un poco en el presente, porque sabe que eso le traerá beneficios en el futuro. Quienes usan este término, en el fondo, están jugando con ese marco sólido: ellos son los padres-madres buenos, que saben más, que nos quieren mucho, que nos desean el mejor futuro y en los que debemos confiar, a pesar de que eso suponga sacrificio para nosotros o para los nuestros.

He mirado en el diccionario qué significa esta palabra: responsabilidad. Cuál ha sido mi sorpresa al constatar que ese término hace referencia a algo bien distinto a todo esto. Responsabilidad es asumir las consecuencias de los propios actos. Y hace referencia también a la obligación moral de reparar un delito, una culpa, una equivocación... ¿Qué tiene esto que ver con la imagen a que se hace referencia? Más bien poco. Y entonces... ¿por qué están usando esta imagen?

**Me temo lo peor.** Se habla de “responsabilidad”, pero en realidad lo que se quiere colar es la ideología sacrificial y culpabilizadora de toda la vida. Por un lado, se plantea que

si las cosas van mal es porque no nos hemos sacrificado lo suficiente. Por otro, se pretende trasladar que quienes sufren, las víctimas, en realidad son las culpables de su propia situación. Se habla de responsabilidad pero de lo que se trata es de culpabilizar a los más débiles, y saquear sus bolsillos: precarizando en este momento las condiciones de trabajo y recortando los derechos sociales. Bajando costes laborales y reduciendo prestaciones.

Los parados, nos dicen, son los culpables de su situación, porque no aprovechan las oportunidades que se les prestan a lo largo de su vida. Y por lo tanto, se tienen que espabilar y deben sacrificarse: quítenseles cuatrocientos euros al mes. También hay que poner detectives para aquellos que han conseguido alguna prestación de manera irregular. Los trabajadores y trabajadoras también son culpables de su situación, como los jubilados, porque viven por encima de sus posibilidades... Modérense sus salarios, redúzcanse sus prestaciones y pensiones y que trabajen hasta morir. Porque las víctimas son culpables, y los verdugos son benefactores.

¿Cómo calificaremos a quienes cuestionan estos sacrificios, a quienes están hartos de sacrificarse, o a quienes piensan que ya es hora de que sean otros los que se sacrifican...? El calificativo viene dado: esos son unos irresponsables.

**Restituycamos la palabra.** Responsabilidad es asumir las consecuencias de los propios actos y es la obligación moral de reparar las averías. ¿Qué responsabilidad tiene la banca que ha provocado esta crisis, y cuyos beneficios se han seguido garantizando con inyecciones astronómicas de dinero público? ¿Qué responsabilidad moral tienen las empresas que, tras décadas de ingentes beneficios, se dedican a despedir barato y a amenazar a sus empleados y empleadas? ¿Qué responsabilidad tienen los partidos que han aprobado una reforma laboral que en solo cuatro meses se ha traducido en más temporalidad y paro?

**Responsabilidad.** ¿Y lo más duro? Lo más duro es escuchar a los líderes de los dos grandes sindicatos del estado hablar de responsabilidad. Ahora todo queda claro: sólo los sindicatos cuya financiación viene de las cuotas de los trabajadores y trabajadoras están en condiciones de denunciar la gran estafa, el atraco que se está cometiendo contra la clase trabajadora.

Por responsabilidad: el 27 de enero, huelga general.

**Xabi Anza, responsable de formación**

## ■ Lanbideko Administrazio Kontseiluko parte-hartzea etenda mantenduko du ELAK

Lanbideko jardueri hasiera ematen dien dekretua jarraituz, ELAK urtarilaren 14ean izendatu zituen administrazio kontseiluan dagozkion bi bokalak. Izendapen hauek burututa, bokal hauek Kontseiluko parte-hartzea etenda mantenduko dutela adierazi zuten. Gizarte politiken arduradun Mikel Novalek salatzen duenez, Lanbide gobernuaren politikari babesa emateko sortu da. “Hemen enplegu eta formazio gaian Estatuan burutzen den politika bera aplikatzen jarraitzeko eta patronalaren interesen aurka doan ezer eztabaidatu ez dadin sortu dute. Ezin dugu ahaztu politika horiek Europar Batasuneko langabezi maila altuenen eta formazioaren kalitate txarraren errudun ere badirela”.

## ■ A favor de la subrogación de los puertos deportivos de Gipuzkoa

Los trabajadores/as de los puertos deportivos de Guipuzkoa están realizando movilizaciones en defensa del derecho de subrogación. En la actualidad estos trabajadores/as están despedidos y con su situación judicializada para lograr su readmisión. ELA denuncia que la Dirección de Puertos del Gobierno Vasco ha sustituido la figura laboral de ‘mantenimiento, vigilancia y limpieza’ existente hasta la fecha y desempeñada por los ahora despedidos por la ‘unidad disciplinaria de vigilancia’. Con esta decisión pretenden eludir el Convenio guipuzcoano de Instalaciones Deportivas Públicas y sustituirlo por el estatal de Seguridad Privada, muy inferior en términos salariales y sociales. En la imagen, acto de protesta en Orio.



## ■ Eros ahalmena bermatzen duten soldata igoeren alde

Kontsumo Prezioen Indizearen datuak ezagutu berri dira; 2010. urtean %3an kokatu zen. Igoera bereziki kaltegarria da egungoa bezalako testuinguruan; zerbitzu igoerari langabezia altua, peribitzu eta prestazio publikoak murrizten dituen gastu publiko baxua eta langileria kaltetzen duten erreformak gehitu behar zaizkio. Beraz, inoiz baino beharrezkoa suertatzen da eros almena mantentzeko eta hobetzeko borrokatzea.



## “COHERENTE Y PROPORCIONAL AL ATAQUE A LOS DERECHOS SOCIALES”

La mayoría sindical llama a la sociedad vasca a responder en la huelga general del 27 de enero a la reforma de pensiones que el Gobierno

Español tiene previsto aprobar el 28 del presente mes. En una comparecencia pública realizada en Bilbao, Estitxu Ugarte (Hiru), Belén Arrondo (STEE-

EILAS), Adolfo Muñoz, Txiki, (ELA), Ainhoa Etxaide (LAB) e Iñaki Lazaro-baste (EHNE) –en la fotografía de izquierda a derecha– pidieron a la clase trabajadora que el próximo día 27 salga a la calle.

Adolfo Muñoz reiteró que la huelga general convocada por la mayoría sindical contra el recorte de las pensiones es coherente y proporcional al ataque a los derechos sociales. “Es la mayor agresión de los últimos 35 años contra la clase trabajadora y la sociedad en general. Hablamos de un nuevo paso en esta estrategia de reducir derechos sociales para convertir ese ámbito en negocio privado. La clase política hace la política que le demanda la banca, el capital y la patronal. Han logrado privatizar la política, que sirva a intereses privados. Esa es la cuestión principal”.

Adolfo Muñoz también denunció la actitud de UGT y CCOO en el gran teatro que se ha montado en Madrid para dar cobertura a los recortes en pensiones. “No se puede acompañar al poder político en la mayor agresión social de los últimos 35 años”.

**ELA, con más del 40% de representatividad, refuerza su mayoría al final de la primera parte del periodo concentrado de elecciones sindicales en la CAPV**

## POR ENCIMA DEL 40%



### **ELA al final del periodo concentrado de elecciones sindicales en la CAPV?**

-Estamos muy satisfechos. Hemos cumplido nuestras mejores expectativas de revalidar el 40% de representatividad en la CAPV al final del grueso de este periodo electoral.

Este resultado tiene una lectura muy clara: es un triunfo de ELA como organización ver cómo la clase trabajadora refrenda nuestro modelo sindical. Un sindicalismo caracterizado por su independencia económica y política y por haber optado por la confrontación contra el poder económico y político neoliberal, empeñado en imponer medidas de ajuste y recortes contra la clase trabajadora.

### **-Unos ganan, otros pierden...**

-Otra lectura evidente, en mi opinión, es que el estancamiento e incluso descenso de los niveles de representatividad de UGT y CCOO, desde posiciones muy lejanas y minoritarias, refleja el fracaso de un modelo sindical que apuesta por el mal llamado diálogo social y vive enchufado a los presupuestos públicos.

### **-ELA sigue siendo la primera fuerza sindical de la CAPV en todos los territorios y federaciones.**

-Así es. Somos mayoría en todas las federaciones. Se da la circunstancia, por ejemplo, de que en la Construcción de Bizkaia hemos recuperado el puesto de primer sindicato. Por lo que se refiere a nuestra estructura comarcal, en 8 de nuestras 11 comarcas de la CAPV estamos por encima del 40%. No llegamos por poco a estos niveles en Bilbao, Gasteiz y Gernika-Durango. Estos resultados muestran una organización muy homogénea, con mucho calado en la sociedad vasca, que aspira a continuar en la misma línea.

### **-Estos buenos resultados se producen en un contexto de crisis económica. Se han elegido muchos menos delegados/as que hace 4 años, algo que siempre perjudica al sindicato mayoritario...**

-Así es. El cierre de empresas –en muchas de las cuales ELA era hegemónica– y el descenso generalizado de los censos electorales nos ha afectado. Sin embargo, esta situación de desventaja inicial la hemos conseguido compensar entrando o mejorando nuestra representatividad en ámbitos en los que hasta ahora nuestra presencia no llegaba a la media de la CAPV. Sin triunfalismos de ningún tipo, lo cierto es que estamos satisfechos del trabajo realizado y del refrendo de la clase trabajadora. Una clase trabajadora que ha tenido claro cuál es el modelo sindical que defiende sus intereses.

### **-¿Y ahora qué? ¿Qué va a hacer ELA con esta revalidada y amplia mayoría?**

-En la CAPV, sólo 1 de cada 3 trabajadores/as defiende, apoya, da el visto bueno... –como queramos definirlo– al modelo sindical y al papel de acompañamiento del poder político y económico que están desempeñando UGT y CCOO. Por contra, 2 de cada 3 trabajadores/as han refrendado la línea de la mayoría sindical vasca. Para nosotros, el mensaje está claro: tenemos que continuar en la misma línea, y cada vez ser un instrumento más útil para la clase trabajadora.

Para nosotros, este refrendo es un acicate para la huelga general del 27 de enero y para plantar cara a los futuros recortes que anuncia el gobierno Zapatero, muchos de los cuales llegarán, previsiblemente, con acuerdo con UGT y CCOO.

### **-El periodo concentrado ha concluido pero sigue habiendo elecciones...**

-Así es. En menor medida, pero las empresas siguen celebrando elecciones sindicales, así que no podemos dormirnos en los laureles. De aquí a mayo están en juego un 17% del total de los delegados/as que se renuevan; una cifra importante, por lo que hay que mantener la tensión también en este capítulo. Hay mucho trabajo y muchos frentes abiertos. No podemos relajarnos.

### **-En Navarra, el proceso de elecciones sindicales se desarrolla en plazos distintos. ¿Qué valoración haces de lo sucedido hasta el momento?**

-En Navarra las elecciones han comenzado en octubre y se prolongarán hasta junio. El porcentaje de elecciones realizado ha sido muy pequeño; el periodo importante viene ahora, precisamente. Nuestro reto es llegar al 22% de representatividad, una cifra ambiciosa que no va a ser fácil de alcanzar. Tenemos que volcarnos y lograr la implicación del conjunto de la militancia navarra para conseguirlo.

Así y todo, aún siendo conscientes de que en Navarra queda mucho por hacer, de que tenemos muchos pasos que dar hacia adelante y de que necesitaremos tiempo para lograrlo, quiero destacar el hecho de que ELA tiene en el viejo reino una representación superior a la que el resto de sindicatos tiene en la CAPV. Somos y pintamos más de lo que a algunos les gustaría.

*"Emaitzak onak dira, baina oraindik ere hauteskunde asko gelditzen dira egiteko; ezin gara erlaxatu"*

La primera parte del periodo concentrado de elecciones sindicales concluyó el pasado 31 de diciembre con excelentes resultados para nuestra organización, que ha consolidado, e incluso mejorado, su amplia mayoría en todas las comarcas y federaciones. En el momento de realizar esta información, ELA superaba con holgura el 40% de representatividad en la CAPV, seguida muy de lejos por CCOO, con el 20%, LAB, con el 16,50% y UGT, con el 13%. Unos resultados que, en opinión de Txema Laiseka, "suponen un triunfo para ELA, que ve respaldado su modelo sindical de confrontación, y un fracaso para un sindicalismo estatal que apuesta por el mal llamado diálogo social y vive enchufado a los presupuestos públicos". Laiseka adelanta que ELA seguirá poniendo su mayoría al servicio de los intereses de la clase trabajadora.

**-¿Qué valoración haces del 40% de representatividad obtenido por**

[www.ela-sindikaturua.org](http://www.ela-sindikaturua.org)

**ELA**  **astekaria**

Barrainkua 13, Bilbao

Tel. 94 403 77 00

Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

[www.ela-sindikaturua.org](http://www.ela-sindikaturua.org)

**Franqueo concertado  
nº 08/207**